

Txillardegi nor zen eta hark ekarritakoa zer izan den aztertzeko asmoarekin, Berria Telebistak mahai ingurua egin du Joxe Austin Arrieta eta Xabier Mendiguren Bereziarturekin.

# Konprometitua zenez, librea

Igor Susaeta Andoain

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi-rekin (1929-2012) «gauza askotaz» hitz egin zitekeen, Xabier Mendiguren Bereziartu (Ezki-Itsaso, Gipuzkoa, 1945) hizkuntzalari eta itzultzailearen ustez. «Ateginena zen, gainera». Joxe Austin Arrieta idazle eta itzultzaileak «adiskide hurbilen» taldekoa zuen: «Bera irakasle eta ni ikasle ginen garaitik, hasieratik, samurra eta xumea zela ikusi nuen. 'Hika egin niri', esan zidan lehen egunean». Berria Telebistak mahai inguru batean batu zituen biak atzo, eta, Idurre Eskisabel kazetaria gidari zutela, Txillardegiz, haren lanaz, mintzatu ziren luze eta zabal. Pertsonaz, idazleaz, hizkuntzalariaz, euskaltzaleaz, abertzaleaz, politikariaz... Nor zen eta hark ekarritakoa zer izan den aztertu zuten. Ez zitzaizkion eskatu hil berria definitzea, baina Mendigurenek zera adierazi zuen: «Hasieratik bukarrak konprometitua egon zen bere analisi, ideia eta obrek. Eta horregatik zen librea».

Intelektual «fina eta zorrotza» ere bai, Arrietarentzat. *Huntza eta Hartza* liburuen bidez ezagutu zuen hil berria: «Lan hark zirrara eragin zigun niri eta nire belaunaldiko euskaltzaleoi». Mendigurenek Satoka eta Iker taldeetan aritu zenean eduki zuen lehen hartu-eman Txillardegirekin.

«Zalantza asko» zituen pertsona iruditzen zitzaien beti Arrietari. «Argi zuen, ordea, zeintzuk ziren bere bizitzaren ardatzak: euskara, Euskal Herria, eta horren gaineko gogoeta eta ekintza». Ez zen, ordea, monotematikoa. «Pertsona kezkatu baten erradio osoa hartzen zuten haren gogoetek. Aurreneko saiakera liburuan, adibidez, gizaki guztioi dagozkigun gaiak azaltzen zituen», adierazi du Arrietak. Horregatik, unean uneko «pentsalari garrantzitsuenen» testuak irakurtzen zituela gehitu du Mendigurenek. «Miguel Unamunoren zalea zen, eta hark bizitza buruz zuen sentimendu tragikoa oso errotua zuen kan bere baitan. Uste du Euskal Herriaren beraren bizitza horrela ikusten zuela». Kanpotik zetozen pentsalarien ekarpenak kontuan hartu zituen. Jean Paul Sartre eta Simone de Beauvoirenak, esaterako. «Eta horien ekarpenak ez ziren hizkuntzari lotutakoak», nabarmendu du Mendigurenek. «Gizakiak eguneroko bizitzan eta gizartean dituen arazoei erantzun bat emateko modua zen. Gizakiarekin zerikusia duen guztia iruditzen zitzaion oso interesga-



Joxe Austin Arrieta, Idurre Eskisabel eta Xabier Mendiguren Bereziartu, atzoko mahai inguruan. JAGOBAMANTEROLA / ARP

ria». Puntuari erantzun dio Arrietak: «Unean uneko eginkizunari, eta norberaren hurbileko gizarteari erantzun bat ematen aurkitzen zuten bizitzaren zentzua».

Horren guztiaren ondorioz, euskal literaturari ekarpen handia egin zion. «Formaz eta edukiez, aurreko egileekin konparatuta, zeharo ezberdina izan zen



Gizakiarekin zerikusia duen guztia iruditzen zitzaion oso interesgarria»

«Europako hizkuntza gutxituen inguruan izugarriko informazioa jarri zuen eskura»

**XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU**  
Hizkuntzalari eta itzultzailea

«Zalantza asko zituen, baina argi bere bizitzaren ardatzak: euskara eta Euskal Herria»

«Zeinen interesgarria eta beharrezkoa den, haren obra jasoko duen fundazio bat edukitzea»

**JOXE AUSTIN ARRIETA**  
Idazlea eta itzultzailea

haren ekarpena. Baloietan, kezketan... Ezberdinak ziren. Batzuek, dena den, formatan hain berritzailea ez zela zioten», esan du Mendigurenek. «Bai, izan ziren horren inguruko eztabaida batzuk», Arrietaren erantzuna. Mendigurenek beste hari bati tira

egin dio. «Halere, jada garai horretan euskara batua izango zena eskaintzen zuten nolabait». Arrietak, baina, egilearen obraren zenbait ekarpen ez direla aintzat hartu iritzi dio: «*Haizeaz bestaldetik* eta *Labartzari agur*, adibidez, ia ia oharkabean pasatu ziren. Eta, agian, hor dago Txillardegiren adierazpide poetiko trinkoena». Mendigurenek beste pentsalari handi bat jarri du mahai gainean, gaiari jarraipena emanez: «Askotan ematen zuten Nietzscheren prosaren isplatzeko moduko bat zela. Ohiko irakurleei zaila egiten zitzaien hura irakurtzea. Oso lan duaz, trinkoa, hizkuntza aberastekoa... Kriptikoa, batzuen esanetan». Mendiguren iritzi, Txillardegiren nortasun zabalaren ezaugarrietako bat haren «prosaingintza» zen. «Liburu batetik bestera eboluzionatu egiten zuten».

**Eredu onak edo baztergarriak**

Segidan hizkuntzaren gaia ateratu du: «Europako hizkuntza gutxituen inguruan izugarriko informazioa jarri zuen eskura. Hasi herrialde baltikoetatik... Israel, Irlanda, Txekia... Eredu batzuk imitagarriak iruditzen zitzaizkion, eta beste batzuk baztergarriak». Txillardegik «bazekien zeinen garrantzitsua den hizkuntza baten etorkizunerako haren «estandarizazioa eta batasuna». Hain zuzen, bera izan zen lehena «gramatika baten oinarriak» ezartzen: «Horixe zen gero euskara batuak hartu zuen bidea. Bera bezalakorik gabe, batua beranduago iritsiko zatekeen».

Azken urteetan, aldiz, «prodiarekin» kezkatuta zegoela adie-

razi du Arrietak: «Espainoltzen eta frantsesetan ari garela prosodikoki... Melodiaren usaina galitzen ari ote garen...».

Politikagintzan ere «bide urratzailea» izan zen, Mendiguren aburuz: «Baina berak politika helburu baterako bideratzen zuten. Uste dut egundoko eredu dela bizi osoa aulki batean eserita pasatzen duen politikari errepikatzaileen aurrean». Arrietak uste du «politikari garrantzitsua» izan zela, «estandarra» ez zelako: «Batzuetan, momentu hartan integratuta zegoen taldearekin eztabaidatu eta hautsi izan zuten. Jon Juaristik, adibidez, nor aipatzen du euskal abertzaletasunari buruzko bere lanetan? Txillardegi. Juaristik badakielako hizkuntzaren ardatzuriko abertzaletasuna oso inportantea dela».

Transmisioari ematen zion garrantzia. Eta Mendiguren beldur da ez ote den horretan huts egin: «Badago belaunaldi bat Txillardegi edo garai batean euskalgintzan parte hartu dutenen mundua ezagutzen ez duena, zoritxarrez. Ikuspegi historikoa edukitzea falta zaigu». Eta transmisioa ez hausteko, ideia bat plazaratu du Arrietak: «Zeinen interesgarria eta beharrezkoa den Txillardegiren obra jasoko zukeen fundazio bat edukitzea. Bilgune bat ikertzeko, eta gero aztertutakoa zabaldu ahal izateko. Horrelako zerbait amestuko luke». Pertsona konprometitua, libreak.

@ Mahai ingurua osorik ikusi nahi izanez gero, bisitatu webgune hau:

[www.berria.info](http://www.berria.info)

## OFFF-PDV: Retaguardia! ekimena antolatu dute Iruñean

Otsailaren 24 eta 25ean egingo da emanaldi eta kontzertuekin; Ikuspuntu jaialdiari egingo dako omenaldia da

Erredakzioa Iruñea

Zinema domukentalaren Ikuspuntu jaialdiak zortzigarren aldia bete behar zuen otsailean, baina arazo ekonomikoak direla medio, desagertzekotan egon zen. Azkenean, ordea, datorren urtean egingo da zortzigarren hori, eta bi urteko bihurtu. Jaialdiari berari omenaldia egiteko, zinemagileek, musikariek eta jaialdiaren zaleek Offf PDV: Retaguardia! ekimena antolatu dute, datorren otsailaren 24 eta 25erako. Kontzertuak eta emanaldiak izango dira bi gau horietan, Iruñeko El Bafle aretoan. Egun horietan, gainera (otsailaren 22tik 25era) Ikuspuntu mintegia egingo da.

Offf PDV: Retaguardia! ekimenean ondoko musikariak joko dute, besteak beste: Mursego, Koshca, Corcobado, La debil, Salvaje Montoya, El teatro magnetico, Laia Escartin & Friends, Simon eta Telefonken taldea, berriz, Isaki Lacuesta, Andres Duque, Virginia Garcia del Pino, Kiko Grau, Victor Iriarte, Dani Cuberta, Los Hijos edo Fernando Franco zuzendariak aipatutako taldeekin inspiratutako bideoen proiektioekin arituko dira.

Ekimena «kritikoa, dibertigarria eta herrikoa» da, antolatzaileen esanetan. Doan izango da, gainera. Kultur sorkuntzarako eta elkarrizketarako guneen aldarrikapena egin nahi dute, aldi berean. «Aldarrikapena hausnarketatik eta sormen ekintzetatik abiatuta». Antolatzaileek erakutsi nahi dute une txarretan ere «elkarrekin» lan egiteko prest daudela. «Kalera atera nahi dugu. Ez bakarrik gizartearentzat aberasgarria den kultura eredu bat aldarrikatzeko. Ez. Politikariei sare kulturaleri merezi duten errespeta adierazteko deia egin nahi diegu, era berean. Sare horiei esker eusten baitiogu gizarteari».

Gastuei aurre egin ahal izateko, «mikrodohaintza» kanpaina jarri dute martxan. «Musikariek ez dute kobratuko, baina haien garraioa eta dieta gastuak ordaindu nahi ditugu. Gainera, baliteke material teknikoa alokatu behar izatea. Sarrera doan izango da, ekimenak, irekia, herrikoa eta jai girokoa izanda, hala merezi duela.